


Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Larraul



Aurkibidea

Udalerria: Larraul

Sarrera



Larraul Gipuzkoako erdialdean eta Tolosaldeako eskualdean dagoen landa-udalerria da. 5.90 km²-ko azalera du. Ipar eta ekialdean Asteasu, hegoaldean Alkiza eta mendebaldean Errezil (Urola Erdia) udalerriak mugakide ditu. Bertako euskara erdialdeko euskararen aldaera bat da.

- **Biztanleak:** 259
- **Euskaldunak:** %92,09

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **9**
- Zintak: **15**
- Pasarteak: **74**
- Transkribatutakoak: **19**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **20**

Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Fondo partikularrak

Hizlariak



Inazio Elola Bereziartua (1918-2011)

Benita Gaztañaga Azkue (1927-2014)



Larraulgo Goieneta Bitarte baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Larraulgo Izagirre baserrikoa. Sei senidetan bigarrena. Bederatzi urte zituen gerra hasi zenean. Orduan aitaren bila gauzez etorri zirenekoa gogoan du. Baita "Ezkerren" eta "eskubien" arteko tiroengandik ihesi beste etxe batera joan zirenekoa ere. Garai latzak izanagatik, haurrek jolaserako gogoia ez omen dute galtzen, eta orduko jolasei buruz hitz egin digu Benitak.



Juan Bautista Iraola Malkorra *Patxi* (1931-2021)

Bere izena Juan Bautista izan arren, Patxi bezala da ezaguna. Larraulgo Agerrezar baserrian jaioa. Aita zuen bertakoa, eta ama, Orexakoa. Bost senidetan zaharrena izanik, beti jakin izan zuen etxerako izango zela, eta gustura aritu izan da beti baserriko lanetan. 1975etik 1979ra Larraulgo udaletxeko zinegotzi ere izan zen.



Joxe Irazu Azkue (1928-2015)

Larraulgo Agiñe Zabalaundi baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama Izagirre baserrikoa. Etxean lau senide, gurasoak eta aitona-amonak bizi ziren, bera haurra zela. Txiki-txikitatik hasi ziren anai-arrebak etxean laguntzen. Gerra hasi zenean zazpi urte zituen Joxek. Aita ezkutuan ibili zen, nazionalista zela eta. Gainontzeko senideek ere Ezkerranea baserrian gau batzuk pasa zituzten. Egun batzuk igaro ondoren gerra hotsak urrutiratu ziren Larrauldik, eta baserriko martxa hartzeari ekin zioten berriro Agiñe Zabalen.



Joxe Mari Kortajarena Iribar (1941)

Larraulgo Abeletxe baserrian jaioa. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, Aiako Iturriotzekoa. Abeletxe Larraulgo lurretan badago ere, Asteasuko Andezarretako elizatik gertuago dago Larraulgo elizatik baino, eta beraz, Abeletxeakoak Andezarretara joaten ziren mezetara. Joxe txikitan hasi zen artzain lanetan, osabari laguntzeko morroi gisa. Urte askoan jardun du artzain.



Antselmo Larrarte Roteta (1932-2018)

Larraulgo Larrunbide Etxeberri baserrian jaioa, senideetan zaharrena. Mendiko lanetan txiki-txikitatik ibilia. Aitak berarekin eramaten zuen lanera, lan askorik egingo ez bazuen ere, ofizioa ikas zezan. Geroztik bere kontura makina bat lan egin du Alkizako karobietarako edo Asteasuko fabrikarako egurra biltzen. Baserrian ere beti izan du lana, baina horrek ez dio eragotzi bere zaletasunik handienerako denbora aurkitzea: altzari eta objektu zaharrak bilatu eta biziberritzea, eta egurrezko eskulanak egitea.

Mahai-ingurua Larraulen



Mikela Urkola Sorozabal 1925-03-09 Beobide Azpi Juan
Bautista Iraola Malkorra "Patxi" 1931-12-29 Agerre Zahar
Carmen Elozegi Gragirena 1941-01-01 Opin (Asteasu) Joxe
Irazu Azkue 1928-09-03 Agiñe Zabal Benita Gaztañaga
Azkue 1927-10-27 Goeneta Bitarte Antselmo Larrarte
Roteta 1931-03-01 Larrunbide etxeberri

Lazaro Tejeria Amonarriz (1933-2024)



Larraulgo Larrola baserrian jaioa da Lazaro. Aita bertakoa zuen, eta ama, berriz, Gorotzenea baserrikoa. Txiki-txikitatik artzain lanetan ikasia, langintza horretan aritu izan da urte askoan. Basoan ere jardun izan du, egurretan, Asteasuko igeltxo-lantegiei saltzeko.

Mikaela Urkola Sorozabal (1925-2025)



Larraulgo Beobideazpi baserrian jaioa. Bost senidetan hirugarrena. Anaia eta ahizpa zituen zaharragoak, eta ahizpa neskame atera zen etxetik gazterik. Mikaelak izan zuen, beraz, amari etxeko martxa eramaten laguntzeko ardura. Anaia soldadu joan zenean ere, hark egiten zituen baserriko lanetan ere jardun behar izan zuen. Etxetik Izagirre baserrira ezkondu zen, Larraula bertara.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Politika

1.1. Eskean etortzen ziren, baina ez zuten emateko ezer

- **Hizlaria(k):** Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LUL-010/003
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 00:04:16. **Bukatu:** 00:04:52
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Eskean etortzen zirenei zer emanik ez zuten, justu-justu zeukaten etxekoentzako behar zutena.

Transkripzioa

-Jende asko etortzen zan eskian? Eskian, jende asko?

-Bai baiño eman ez zeon ezein mouz itteik. [...] hemen e zenbat izango zan, lehenbizi pamilya mantendu bihar, ta saltzeko're zenbat izango zan! Nundik? Justu-justu etxeako aiña, ta pixkan bat sobrautakua eamaten zuen ta, [...]

1.2. Soldaduak Larraulen

- **Hizlaria(k)**: Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LUL-010/004
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:04:52. **Bukatu**: 00:07:28
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerran tiroak pasa zirenean, deskantsua hartu zuten. Aita etxera itzuli zitzairen. Bonbak eramaten zituzten gizonak zeintzuk ziren jakiten zuten eta umeak haiei begira ibiltzen ziren. Soldaduak bueltaka ibiltzen ziren. Esnea marmitan freskatzen edukitzen zuten, ezin izaten zutelako Donostiara eraman; eta soldaduek edan egiten zuten. Soldadu euskaldunak izaten ziren. Larraulgo soldaduak gehienak karlistak ziren.

Transkripzioa

-Ta hoixe pasa zian, karlistan tiruak eta, gorriñak.

-Ta, ya handikan aurea, zeak'e deskantso gehixo, han beti bildurak eon bihar baino deskantso gehixo bai, hori ez zan denboa askoko izan e, denboa askokua ez zan hoi're.

-Hillabete bat, eun batzuk?

-Bai, eun batzuk, [...] eun batzuk, bai.

-Ta ordun ya, aita berriz'e etxea, ta berriz'e etxeko martxa...

-Bai, etxeko martxa hartu ta segi. Ta gaiñea orduan izaten zan, bonbak eaman zuna aparte izaten zan, bonbak eaman, bonbak ibiltzen zitun gizona gerriz goia eze jantzi be, [...] seiñalea hoi izaten zan, bai, bizkarrean [...] hartu, ta gerriz goia libre, ta bestia berriz kartutxerak, buelta [...] "Hoi dek, hoi dek, bonbak zebizkinak" ta gu hola alkarrei esaten aitzen giñan, ume kontuba, [...]

-Ta umek haien albo ta arrimatzen ziñaten?

-Arrimatu? hemen ez baiño [...] zortzi hamarren bat eun pasatzen zituen hemen, ta bestekoan ta, han ibiltzen zien. [...] bestetan Asteasua jutun zien ta, holaxe, gu hemen bertakuai ez gendun iten, hola etortzen zienai ez gendun sekula zeaik izaten, sekulaxe ez. Etxe hor Donostia jutun diez gaiñea, birien jutun diez ta, esnien ta hor bazon zean ta eoten zien marmittan ta prexkatzen jarrita ta, handik hartu ta esnia eaten zuen ta, primeran, ezen zeaik be, bai bai bai, duskusiyoik be, bai.

-Zer zian, kastillanuak zian, napar euskaldunak zian?

-Bai euskaldunak jenealian, euskaldunak bai, euskaldunak, hemen bertako hamen Astiasuko ta, holako jendi hau, ta bestia beiz hortik etorri zianak hor Azpetti aldekuak eta, [...], bai, gorrikin ibiltzen zienak.

-Hemen ordia karlistak ibiltzen zian.

-Hemen karlistak. Hemen Astiasu aldetik hemendik ibiltzen zienak hau karlista jendia zan, bai.

-Naparrak gehienak, o?

1.3. Soldaduak normal jantzita ibiltzen ziren

- **Hizlaria(k):** Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LUL-010/006
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:08:20. **Bukatu:** 00:09:59
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena:** Soldaduek ongi jokutzen zutela dio, ez zuten lapurretarik egiten. Normal jantzita joaten ziren. Armengatik antzematen zitzairen soldaduak zirela.

Transkripzioa

-Ta, nolakok zian soldadu hayek? Zuei nolakok iruitzen zitzaizkizuen o?

-Gu, gu ondo, ez ziguen eze zeaik itten, ez zen zeaikan.

-Lapurretaik ta ez zuen iten?

-Ez, ez, ez, ez, hemendik ze eaman bihar zuen?

-Oillaskon bat o, arrautzan bat o.

-A, bai, ai, ez zian gauza asko izango, hor'e beste [...] oillasko mordoxka bazan ta, eztait hala izango zan behintzat, [...] etxe hartan bertan zeola jota herittuta, ta oillaorra ekarri ta, beste lumak eta kendu, ta erre ta

bertan jan izan zuela seituan, behintzat bakit, oin eztakit bazian, bai. Gaiñontzian ba, bai nahi izan duna, hemen hemen'e ze izango zan eamateko, etxeako gutxi ta, ze izango zan, hutsa.

-Ta nola jantzita ibiltzen zian soldadu haiek?

-Beno, hemengo jantzi klasia.

-Normal jantzita?

-Bai, normal jantzita.

-Ez zuen hola soldadu jantziik eta?

-Nik eztait! Nei ez zait behintzat akordatzan ta...

-Txapela o, galtza berde kakik o...

-Ba ez ez det uste oain bezelako zeaik izaten zanik ordun.

-Maonezko galtzak eta...

-Bai, bai bai. Ta kartutxera ta eskupeta bizkarrian ta kitto. Bai.

-Ordun jazkeratik bakarrik ez zan antzematen bat soldadua zala o, ez zala o.

-E?

-Jazkeratik ez bazemakin armaik o kartutxeraik?

-Ez, arma ibiltzen zuen ta handikantxe antzematu bihar gaiñontzian jantziyatik beira [...] jantzi difeenteikan izaten zuenikan'e, [...] zortzi urte nittun ta, ba.

1.4. Alkizako errotara zaldi gaineen

- **Hizlaria(k):** Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LUL-010/009
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:13:44. **Bukatu:** 00:15:40
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena:** Artoa zaldi gaineen hartzen zuten eta Alkizako Urruzolako errotara joaten ziren. Bertan, txanda itxaroten egon behar izaten zuten, eta ondoren etxera bueltatu. Hango nagusia gizon handia zen eta ez zien gauza handirik kentzen errota erabiltzeagatik. Mutil taldea biltzen zen bertan.

Transkripzioa

-[...] attu giñan ta, talua jan bihar, ta, [...] errota, ta artua hartu zaldi gaiñian, zakua artua, ta hara jun ta kriston pillu, ta iriña in arte, han kolan.

-Urruzolan?

-Urruzolan, Urruzulana zan, hoi da, hoi zan Urruzula atzian pixkat beheraxeo errota, eztait oain hor errota o, eztait ze [...]. Ta, han ta, [...] exeita o etzanda jarri bi ordu pasa giñun nik han, eon in bihar txandan, ta beno, zea iriña iten zun garayen, zaldi gaiñian hartu zea, iriña ta etxea.

-Amak bokadilloa prepatuko zizuen harea juteako.

-Bai bai, tarten uste det etortzen giñala uste det etxea zeoze jateko eamateko're, ta hartu jana ta bokailloa hartu ta berriz'e korrika hara, txanda zaitzea.

-Ordun'e lakaia o zeoze kenduko zizuen bertakok?

-E? Zea, hango nausiya gizon haundiya zan, bai, haundiya, Mantalio, haundiya gizona ta bueno, hue zan harek illuntzian alde itten zun etxea ta semiak, handikan harek ez zuan gauza haundiyaik handik kentzetik'e, ez

zeon zeaik ba...

-Han ze juntatzen ziñaten mutil koskor kuadrilla?

-Mutil koskor kuadrilla, bai, bai. Mutil koskorak gu orduako pixkat goortuk'e bai iual izango giñun, hamabost bat urte hamasei bat'e iual orduako [...], bai.

1.5. Goserik ez zuten pasa

- **Hizlaria(k)**: Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LUL-010/013
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:21:45. **Bukatu**: 00:24:15
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Goserik ez zuten pasa. Txerria, babarruna eta taloa izaten zuten etxean. Orduan dena ona iruditzen zitzaien. Sardina zaharrak ere izaten ziren. Inor enteratu gabe hiltzen zuten txerria etxean.

Transkripzioa

-Goseik pasa zenduen, garai haitan?

-Ez, behin'e ez gendun goseik pasa, zeoze [...] izaten gendun. [...] jenealean, urten txerri [...] hiltzen zien, ta zerri haundik, ta [...] puxka bat zeatu, baarruna eltzeka baarrun eosi, han beste [...] puska bat'e bai, ta [...] plateka baarrun jan, ta geo urdaia. Honbesteko zea, urdai puska. [...] Hua platean jarri ta, ogiyakin o taluakin o zanakin zaka-zaka-zaka-zaka eitten gendun, urde zui-zui-zuiya [...], ordun dana ona, pixkan garaian dana ona izaten da.

-Ordun ez zan kolesterolik.

-E?

-Ez zala kolesterolik.

-Ez ez ez, arrastoik ez izaten zanikan'e ta, hua jaten genun ta beno, goseik behin ez. Ez goseik ez, hola goseik ez, ta geo beno, geo ama ta hor behera juten zian garaian handikan'e zeoze ekartzen zuen ta geo, sardiña zaharra beste mordoxka bat ekartzen zen ta, beno segi, bat ez bada bestia ta.

-Erdibana ingo due sardiña zaharra.

-Besteenetik puxkatian bai. Ta, erditik moztu, ta isats aldia nahi, batai ta, bestia buru aldia [...]

-Ta, urdaia esan dezu zuk baiño, txerri baten urdaia azkar bukatuko zan, bigarren txerriik ez al zenduen hiltzen etxen?

-Bai, bai bai, bi hiru igual, txerrik.

-Baiño ordun galazita ez al zeon?

-Baiño, ixilik hiltzen giñun, ixilik, bueno.

-Ta nola akatzea ba, txerriya ixilik?

-E, zea, ta ze uste dezu, hemen [...] txerriya zenek hiltzen zun ta ez zun? Iñoa txispazoik eman be, ez zeon iñor, ez zan, ez zan ez zan enteatzen, hilda zeatu ta sartu zean kutxapien ta kitto.

-Ze burun mazoakin jota o hola?

-Burun mazoa askotan bai burun mazoakin ta, bai. Geo bestalde bai txerriyak zenbat denboa izaten du ba bai behin labana sartu ezkeo pixkaten kurrinka pixkat iten du baiño, ba, [...] geo nik'e bai, txerri asko hil nun nik'e, [...] txerri asko, hemen ta atzian ta [...], Milan etxen'e bai ta.

2. Baserria

2.1. Asteasuko 'Pello Errota'rengana

- **Hizlaria(k):** Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LUL-010/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:17:40
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Errota
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Nafarroatik irina ekartzen zutela uste du. Asteasun bizi zen Pello Errota bertsolaria. Hara ere joaten ziren.

Transkripzioa

-Ta illuntzian bestelako kontrabandoik izaten zan?

-Nola?

-Bestelako kontrabandoik? Hemendik Naparroa urruti.

-Ba, Naparrotikan'e uste det, handikan'e zeoze iriña inda ekartzen zala uste det baiño ordun ez da Naparroa eztatit ze izango zan, handikan'e uste det ekartzen zala garie, gariye eaman ta iyota o hemen iyotzeko pulamentu haundiik ez ta, geo bestia errota zea zan hor, Astisun Pello Errota, zuk Pello Errota aitzia're izango dezu, bai, bersolaya ta, [...] haretxen etxe hartan zan beste zea, zuk Konportako buelta're zein dan jakingo dezu hoi, Konportako buelta Konporta zein dan ez dakizu, hor Villaonatikan geo [...] behera abittu ta, lehendabiziko zean, hola buelta ezkerreta don estu estu bat badao ba, aldamenian fabrika haundi bat dauka, ba harren hangua dan tokiya hartan han in zan baserriya, hua zan Konporta, ta aldamenian Konporta Txiki, ta han zan errota, Pello Errota, bai. Hara askotan juten giñan gu zeara, errota.

-Gaez?

-Ez, geo libratu ta geo're bai, libratu ta geo're, bai, bai. Ba gaiñontzen hola, iriña zeatzeko ta, ez zan zea nahikua, nahiko izaten zan, [...] nunbaitetik jan biharko zan ba, ta ez ez hola zeatzen, ez [...] asko kaso itten zuenikan. Zea're, noabaittea eamatea eo zea akaso eingo zuen baiño ez, etxeako aiña're ez zen bela ekartzen! [...] ez zen bela ekartzen, bueno ba!

2.2. Arrazionamendua zer banatzen zuten

- **Hizlaria(k):** Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LUL-010/011
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:20:58
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Herrira (abastos) janaria entregatu behar izaten zen. Ez zuten eramateko gauza handirik. Errazioan olio eta horrelakoak

banatzen zituzten. Bertako nagusiek banatzen zuten. Ezti koloreko azukrea ere eta boniattoa ere ematen zuten. Ogia gogorra izaten zen.

Transkripzioa

-Ta bestela, karo herria entregatu in behar izaten zian ba, armak ta...

-Bai, bai, hala zan orduan entregatu biharra izaten zan.

-Izkutatzen'e ibiliko ziñaten.

-Bai, izkutatzen, ze izaten zan eamateko're, ez gendun gauza haundiik izaten eamateko're, justu-justu gauzak, etxian jan ta, ze eamateko [...] eongo zan eamateko, nehikua izango zan, bai. Geo zea're, raziya're partitzen oliyua ta honbeste zea ta hua partitzen e ibiltzen zian, ta hua zortzi eunian o hamabostian behin o [...] zeatzen zuen, partitzen zuen, ta, Txunbei ta, Txapartegi ta, Usandizaga ta, hoik zien hor, jefe, hemen bertakuek eta.

-Kartillakin jun behar izaten zenduen?

-Ba, ba bestela [...] Hiru lau bat [...] klase eukitzen zitun, ta jende asko xamar zan tokin pote haundiya ta, txikiya berriz zea pote ttikiyakin ta, ba bakoitzak be raziya.

-Ze jasotzen zan razionamentun? Ze izaten zan.

-Oliyua jenealian. [...] oliyua. [...] gaiñontzian gauza asko, hor, eztait [...]

-Azukrek o, kafek o zigarrok o...

-Azukria bai, azukria're ba zea dao, bestia, eztikoa're gozo-gozo-gozoa izanik'e harek ze izen zun, hura aldin behin partitzen ekarri iten zituen, [...] Gozatzen zun horrek, gozatu itten zun, baiño oain ze klase izango zan, ze indakua, [...] al zana. Al zana ekarri bihar, bai.

-Patatea entregatu ta boniattoa eman?

-Baita're, bai, boniattoa txarra huan hua're, txarra, baiño, agindu itten zuen ta, in in bihar, bestela multa o zoze izango zan!

-Ta ogik e ematen zizkizuen razionamentun? Esan dezu ba lehen, gor hoiek.

-Bai, gorrak bai, [...] o haundixouak, goor-goor-goorrak. Hue jateko moukoa're... jateko moukoa're bueno, beak'e ez zien lotsatzen, hua partitzia, ez zien lotsatzen hori dek marka hoi!

-Hoiek ez al zian izaten 'primerakok' eta 'segundakok' eta... 'tercerakok' eta...

-Bueno, ez dakit harekin, ez det uste hue argi, 'primera' ta 'tercera' bat'e ez zan hue ta, hue bat'e ez... Ta nik esaten det, hua partitzia ez lotsatzia hoi dek marka hoi! Ez lotsatzia... holakoxe legiak zien ordun ta! Ze iñik ez!

2.3. Txerria nola hiltzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LUL-010/014
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:24:15. **Bukatu**: 00:26:09
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
Baserría » Baserriko lanak » Baserrinari lotutako lanbideak
Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Etxez etxe txerriak hiltzen ibili zen. Txerria nola hiltzen zuten kontatzen du.

Transkripzioa

-Ze etxez etxe, txerri hiltzen?

-Txerri hiltzen bai. Ez zan txukun eingo izango baiño guk pixkat jakin ta bestek hainbeste ez, ta segi.

-Nola hiltzen da ba txerrie hola...

-[...] bestela bi launek hiruk eutsi, mahaiyen gaiñea botata, [...] ta buru honela ta da! Sartu labana, gantxua lepotik heldu ta gantxuan [...] aurea alde in burua alde in sartu labana ta odola txorroka botatzen zun ta beno, belaxe hiltzen zan.

-Odola ze, balden batea jasoko zenduen?

-Bai noski, baldea hua, ta [...] nahastu, bestela goortu itten zan seittun, ta nahastu nahas ein ta geo [...] itteko.

-Eta behin mahai gaiñen odolustutzen, odolustutzen zanian?

-Orduan itten gendun erre.

-Bertan?

-Bai, [...] jarri, ta jota lasto puxka bat o zoze sagarra bota gaiñea ta su eman ta erre ta, hola azala puskat erre iten zayon garayan, ordun berriz mahaiye gaiñea. Ordun tripak atea.

-Zertako erretzen zan ba?

-Azala erretzeko ta illiak eta erretzeko. Bestela batzuk jesukriston illia izaten zuen ta.

-Urdaia gortzeko're ez zan esaten?

-Beno, goortu, geo kanpuan jarrita're urdaia goortzen zan, bai beti goortzen zun erreta, goortu itten zun, bai hori bai baiño, [...]

-Ordun erre ta berriz'e mahai gaiñea iyo?

-Bai.

-Sasoia beharko zan.

2.4. Txerria hil ondoren ingurukoei partitzera joaten ziren

- **Hizlaria(k):** Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LUL-010/015
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:26:09. **Bukatu:** 00:28:48
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
 - Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
 - Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena:** Txerriaren zatirik hoberenak auzoetan partitzen zituzten. Apaizari zerbait ere ematen zien, medikuari ere bai. Denak tartekoak zirenez denei zerbait eman behar izaten zitzairen. Etxeko txikiena bidaltzen zen partitzera. Ama ere batzuetan joaten zen. Joaten zenari errearen bat ematen zioten.

Transkripzioa

-Bai, mahai bajua jarri, [...] jarri ta han tripak atea, ta tripak ateata [...] zintzilika jarri ta udakin ta txukun-txukun garbittu, ta beno, hurrungo eunian o hurrunokuan o, jota puska ta jarri ta, baiño hemen'e usaya bazan ordun'e, txerriyak zittun gauzik hobenak, auzota, bat horrea, bestia honea, bestia horrea, bestia horrea dozenerdi bat tokita partittu, eta etxen iya bat'e ez. Usaye zaharra. Geo bestetikan'e erretzen zittuen ta handikan honea'e ekartzen zien, baiño eztakit ze ze usaya ze zan...

-Ta zatiik onenak apaizai gaiñea?
 -Apaizai eamaten genizkon, apaizai're bai, bai.
 -Gaiñuntzian ze ematen zitzairen auzokoi o senidei.
 -Zer, zeak?
 -Oolkik eta.
 -A, zeñei hoik [...]re tartekua, hangua're tartekua, [...]re tartekua, [...]re tartekua, danak tartekuak. A. Danak tartekuak. Ta asko ez zen eamaten baiño, honea pixkat, horrea pixkat, horrea pixkat, eze ez, azkena-azkena etxeako eze ezer ez.
 -Ze bialtzen zan, etxeko txikiña o... hola, ume pixkor bat?
 -Bai, bai jenealian bai txikiña. Ni're ibili izan nintzan batzutan ta geo, zea're bai, amak'e batzutan eamaten [...] eamaten zun ta, hango attona're honea askotan etortzen zan, ta, [...].
 -Ta, ze esaten zan holakotan? Umia jun zea tartekon etxea ta...
 -[...] txerriya nola zan hiltzekua ta laiste zala hiltzekua ta holako kontuak izaten zien bai, bueno...
 -Baiño, esaten zuen zoze? Behin olkik jasotakon? Esaldin bat hola...
 -Ze, zea esango zun geo, orduan zoze ematen zan, o erriel bat o bi errial eo, zeoze juten zanai ematen zitzaion, bai.
 -Ta olkik ordaiñetan o ez al zuen esaten?
 -Ba, holako gauzaikan... Tartian horko [...] Amonak eman zizkian bi errialeko txulua diruak, zuk ez daki ez ziñun izango, bi errial zian bakoitzak, baliyo zun bi errial ta bi errial, lau errial ta [...] attonak: "A, [...] itteko moun zea!". Zulua izaten zun hola biyak, [...]. Ez zat ahaztuko hoi ez da gaur goizeko kontuba jesus maria! [...]

2.5. Garia nola aprobeztatzen zuten

- **Hizlaria(k)**: Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LUL-010/022
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:44:32. **Bukatu**: 00:46:55
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
 Baserrria » Baserrriko lanak » Baserrriko animaliak
 Baserrria » Baserrriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Lastoa behientzako gordetzen zuten eta garia ogia egiteko. Beranduago makinarekin egiten zuten lana, inguruko batzuk etxez etxe ibiltzen zuten makina batekin. Makinak alea banatzen zuen. Zakarra bazterrera botatzen zen eta txukuna zakuan sartu. Zakarra eta lastoa azpiak egiteko erabiltzen zen.

Transkripzioa

-Geo lastua, behientzako, neguako, ta gariya berriz ogiya itteko.
 -Geo [...] o pasatzen zitzaion?
 -Bai estreñeko zeako bai geo [...] pasa bihar danak, geo zeak'e atea zittuen, makinak'e atea zittuen, lastua jotzekuak'e, gariya jotzekuak'e ta, bai, hoitan zea ibili zan [...] zea, Iraola, Iraola ta bai, hoik, hoin atta, ta beste anaiya gazteoua hemen etxez etxe ibiltzen zian hoik, gariya jotzen.
 -Ta makina horrek, alia alde batea botatzen zun ta zikiña bestea?
 -Bai, bai alia alde batea, baiño in behar [...] bota zea, lasto sorta. Bai.
 -Ta, nola esaten zitzaion? Alia ez zanai, zikiñai nola esaten zitzaion? Izenik bazun?

-Zikiñe? Zoze esango geniyon baiño.
 -Iriñana zahia dan bezela...
 -Lastua lastua harrek'e lastua izaten zun ta, gaiñontzian ez dakit ze izen izango zun harrek. Ez dakit ze izen izango zun horrek. Ez zat goatzen e, izango zun zeoze, harek'e izena. Geo behintzat galbaiye pasatzen zan, galbaiye pasatzen zan, ta zakarrak zeara bota, bazterrea bota, ta txukuna behian geatzen dana geo hua zeara zakua sartu, bai.
 -Ta zakarra, e ganaduntzako jan bezela ibiltzen zan o azpik iteko o?
 -Azpik itteko, [...] jateko, puxka bat, ta geo bestia lastua [...] zea itteko, ganauntzako jaten zuena ta ganauk jaten ez zuena azpitako, dana aproetxatzeko moun.
 -Negun mezeta goizen juteko're lastaalakin ta ibiliko ziñaten?
 -A baita! Bai, bai hemen askotan [...] eman su ta segi!
 -Beso azpin beste pare bat hartuta!
 -Hoi ba, bat [...] zaneako bestiakin, [...], bueno!

2.6. Artoa eta babarrunak elkarrekin jartzen zituzten

- **Hizlaria(k)**: Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LUL-010/024
- **Iraupena**: 0:02:36. **Hasi**: 00:48:55. **Bukatu**: 00:51:31
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
 Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
 Baserría » Baserriko lanak » Artoa
 Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena**: Garia eta artoa etxerako izaten zuten. Babarruna batzuetan eramaten zuten saltzera. Artoa eta babarruna batera egiten zituzten. Gaur egun ere berdin egiten dute. Lehen arto motzagoa egiten zen.

Transkripzioa

-Gariya, leno're galdetu dizut nola iten zenduen, hoi ez zenduen, saltzeko ta sekula ibilli ezta? Zuen ama tratuan ta juten zanen, ogiik eta ez zun saltzen?
 -Ez ez, ez ez, ez etxeako, bai.
 -Ta artua're, igual, etxeako?
 -Etxeako.
 -Hoiek ez zian saltzen?
 -Bai etxen geo [...] izaten zuen ta, txerrik hiltzeko ta, oilluantzako ta, dana handik izaten zan ta...
 -Ta baarruna're eamaten zun zuen amak saltzea o?
 -Batzutan eamaten zun, asko baldin bazan, baiño [...] hemen gaur bat eta bihyar bestia ta etzi bestia ta izaten dia, eunero difeentiak, ordun ez zan izaten holakoikan e, baarruna ta urdai trontzo earra, gordin-gordina.
 -Artua ta baarruna batea iten zenituen?
 -Bai, batea itten giñun. Baiño, [...] artua in ta handikan ba ez dakit ba hamabost bat eun o hillaetea o noiz in gendun baarruna, e, ta artuak etorrera txarra in zun e, hoi esan bihar du, [...] ezautu deten txarrena, artuan etorrera, jata jota dana txikituta ta, ebaldi earra hasi zan garaiyan in gendun baarruna, hillaete igual, in gendun, ta oain, dana gaiñetikan hartu, [...] artua're haziya do e, loria ateata goora dijua, halare baarruna

goorao.

-Lehenoa holakoik ez zan gertatzen ezta?

-Nik [...] ta hua biyai eman, ta nik ez dakit nola, orduan itten gendun ba, behetikan gora hartu ta, artuai pixkat bueltan eman, ta artuai beai lotu, ta ondo lotzen baldin bazan berriz onduan arrasta jute zan ta gue ama zaharrak [...]

-Ze lehenoa, beste arto klase bat o ingo zan?

-Arto motxaua, arto motxaua zan lehenoa.

-Azkar etortzen zana?

-Nik ez dakit, nik ez dakit, baino gutako [...] lehengo urtian ez gendun aldatu, ta nik uste det horrek'e pixkat aldatu ezkeo hobia dula zeatik lehendabiziko urtea izaten da [...], biarren urtea ezkeo [...], bajua geatzen da, ta, ez dakit.

2.7. Lurra prestatzeko teknikak

- **Hizlaria(k):** Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LUL-010/026
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:53:39. **Bukatu:** 00:56:05
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- **Laburpena:** Lurra txikitzeo hesia erabiltzen zuten. Tresna hori nolakoa zen azaltzen du. Harekin lurra prestatzen zuten. Alperre ere erabiltzen zuten lurra txikitzeo.

Transkripzioa

-Ta zuek jenealio goldia pasatzen zenuen?

-Ba bai bai hemen jenealio zea, goldia.

-Geo harria're bai?

-Haria, [...], haria, ta geo hesia, lurra txikitzeo.

-Nolakua izaten zan hoi?

-Hoi, hola, hiru o lau izaten zittun, atzian beste [...] hoi ta, jartzen zian egurrak, ta geo [...] egur mehe xamarak, hemen batzuk sartu, hemen bestia, hemen bestia ta [...] goora arte, ta hala hesia, hau zeatuta jarriko balitz bezela, nola esaten da, makilla txikikin o [...] postura hontanxe jartzen da. Ta, hoi hola jartzen gendun, ta hola bukatzen zan garaiyan, goitikan behera, soora eaman, ta harri batzuk gaiñian jarri, hua ganauri eantsi, ta segi souan! Hauskaldea ta, honuskaldea ta, lurra txikitzen, bai.

-Harro-harro in arte?

-Txikitu itten zun harek, harek lurra txikitu ta, harekin pasara bat o, eman, [...] harekin pasa, berriz, bai, ta geo ez bazendun lur txikiya baldin bazeon berriz'e hesia pasa, ta...

-Bitarten beste [...] ibiliko zien?

-Bai, lurra ona jarri in arte, lurra [...] ta geo azken aldea hasi giñan berriz estilo hortan baiño, jarri lau egurrak, ta listoiya jarri hola, "tak", ta errexaua, josi ta geo hua jarri bestaldea jirauta ta aide, ordun errexaua, bai, [...] baiño hesiyakin bueno, geo beste batzuk berriz zeakin ibiltzen zien, [...] alperrekin, zuk alperre aitzia're izango zu alperre? Bai, hua jarri ta harekin, lurra txikitzen, e? Harri puska zapaldu, [...] lurra gozatu arte.

2.8. Artoa zuritzen

- **Hizlaria(k):** Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LUL-010/028
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:00:14. **Bukatu:** 01:00:50
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena:** Artoa mandoarekin biltzen zuten eta gauean tarteka zuritzen joan. Txurikina behiei ematen zien.

Transkripzioa

-Hoixe, hola puskan ibiltzen zien garaiyan, [...] pilloa ein ta, giro earra zan garaiyan ta. Geo tarteka tarteka, zuittu, gautan, izaten zan hua, gaubian bi [...] eo bi xexteaka eo, hiru eo, zenbat jende zea zan ta geo, biyar beste pixkat ta, etzi beste pixkat ta, hola pixkana-pixkana, aitzen giñen, bai, bai.
-Ta txurikiña?
-Geo, txuikiña behiyai emateko, geo behiyai eman txuikiña, bai, holaxe.

3. Ekonomia eta industria

3.1. Karea nola egiten zuten I

- **Hizlaria(k):** Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LUL-010/016
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:28:48. **Bukatu:** 00:31:40
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- **Laburpena:** Larraulen zenbat karobi zeuden. Menditik egurra ekarrita karea nola egiten zuten azaltzen du. Normalean pagua erabiltzen zuten sua egiteko.

Transkripzioa

-Holaxe.
-Lehen esan dizut galdetuko ingo nizula karia, nola iten zan, hoi jende gutxik iten baitzun ordun, ezta?
-Hemen, guk ez gendun askotan in, guk [...] hoixe, gutxik.
-Zenbat karobi zian ba Larraulen?
-Karobiak? Hemen bi [...] bi, bi ta, hor gaiñontzian hola, [...]. Harek'e zer zun? Nekia galanki. Mendia jun, egur pilla bat ekarri, [...] geo harriya, ta pixkana-pixkana hasi behetik eta gora zeatu, [...] zea behetikan gora jarri altxata torria inda harriya dana harriyak. [...] hua egurrakin-ta jarri pixkat, hua sua emanda hari sua eman, ta halaxe, hiru bat eun eo ez dakit ba nik zenbat [...] egurre eman ta egurre eman ta egurre eman ta segi egurre eman ta egurre eman ta, goiko harri koskorak-eta, ta erreta goitik behera jetxi arte, jetxi arte ibiltzen giñan. Nekosua zan hua're e, nekosua, bai.

-Ze iten zenduen, azpiko zulotik hasten ziñaten, e? Harriyakin hola galkaldia iten o?

-Bai, ba bai, sue eman ta itten zan hoi itten zan puskatu itten zan hoi, suak erretzen zun garayan goitik behera jeitxi itten zan bea, ta geo berriz, [...]

Behetik hasiko giñan geo zeatzen, karia, keitzen, beheko atakatik, holaxe [...]

baiño, hola aitzen giñen. Bestela gaiñetik ez zeon hasteikan, behetik hasiko zea noski.

-Ta ze egur klase botatzen zitzaion, aurrena otia hola ibiltzen zenuen?

-[...] subak indarra hartu arte. Behin egurra jarri ta subak indarra hartu ezkeo ordun eozein.

-Ze egur klase?

-E?

-Ze egur klase?

-Pagua jenealian. [...] hua zan hobena zea itteko, oain, al zana, bestea bat ez baldin bazan bestia, egur pillla haundik erretzen zian hor'e.

3.2. Karea nola egiten zuten II

- **Hizlaria(k):** Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LUL-010/017
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:34:57
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
 Ekonomia eta industria » Lan-prozesuak
 Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- **Laburpena:** Karea egiterakoan, lanik handiena harria ekartzea izaten zen. Harria ateratzeko dinamita behar zen. Zuloa eskuz palankarekin joz egiten zuten. Karea nola egiten zuten.

Transkripzioa

-Aurrena prepatzen nahiko lan izango zan?

-Prepatzen denboa ikaragarri.

-Zenbat pago botatzen zian karobiyan?

-Ba, hori, [...] pagua subana baiña harriya ekartzen, harriya ekartzen zeon lanik haundiña.

-Nundik ekartzen zenduen?

-Ba hor bertan ba aitzen giñen hor bertan [...] harrik [...] tokik. [...] zean sartu dinamitak, ta tirua in ta [...] ekarri jun zeakin ta behiakin ta ekarri ta, segi, harri jartzen, [...]. Lan xelebria.

-Zulua iteko eskuz iten zenduen?

-Zenekin ba?

-Palankakin joz?

-Bai palanka, [...] segi, ta hola zulua [...] sartu dinamitak eta, eman su ta.

-Dinamita ze Tolosatik ekarrita o Asteasuko kanteratik o?

-Ez dakit, hoixe ez dakit nundik ekartzen zien'e, ez dakit. Ordun hola haik dinamitak ekarrita're oan bezelako zeaik oain ez lueke utziko, halako gauzak ekartzen baiño holako zeaik ez zon ta, ba.

-Ta harri pusketa haundik behar izaten al zian, karobiako... Harri pusketa haundik behar izaten zian o txikikin nahikoa?

-Beno, han han eozein jartzen zala jartzen zala geo iual-iual eosten zan han, jarri in bihar, [...] eozein mouz.

-Ta ordun geo txikitu behar izaten zenituen?

-Nola?

-Txikitu behar izaten zenituen?

-[...] holako harri koskor batzuk-eta, [...] al zan bezelakua. [...] ugari jarri, ta itxi-txita jarri bestela, baten tartian zulua uzten baldin bazan, geo hutse izaten bait zan, ta ondo bete bihar tartiak-eta.

-Ta nola iten zan aurreneko, klao, egurra sartzeko zulua utzi beharko zan, ez eroitzeke ta... Hortako abilla berko zun, ezta, gizonak?

-Nola? Hasten giñan, holakoxe [...] metro koadroa o gehixo o izaten zan, ta goitik behera bota ta, atia utzi, e, harriyak egurrai [...] bazterretik hasten giñan [...] buelta guztin, illera bat, geo hua jarri geo beste illera, ta geo beste bi illera ta pixket goora hasi arte, ta geo goora puxkat haste zan garayan [...] zea pixkana-pixkana-pixkana-pixkana harri haundia zuen ta al zan bezela, [...] ta gaiñen dana itxi, harriyak, ez zan hua oso segurua izaten. Ta beno [...] hola pixkat tapatu ezkeo geo bai hola puxkat tapatu ezkeo tapa-tapatua, errex [...] puxkat tontortu.

-Gurutzeik o jartzen zitzaion gaiñen?

-Ez dakit, zeoze izango zun, zeoze izango zun ordun'e, bee zea, bai.

4. Lanbideak

4.1. Karea egiteko elkarlanean

- **Hizlaria(k)**: Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LUL-010/018
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:34:57. **Bukatu**: 00:37:27
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Karobia zaintzen zuenak sua mantendu behar zuen. Karea etxean nola erabiltzen zuten. Zenbat aldiz egin zuten ez du gogoan. Beste batzuekin elkartzen ziren karea egiteko.

Transkripzioa

-Ta, beheiyan ordun sua eman, ta zaintzen zunak, bazun egurra sartziaz aparteko lanik?

-Harrek? Ez, eurre sartzen nahiko lan, sartzen. Hua, itzali be euki bihar, su haundiyakin.

-Zenbat laun eoten ziñaten?

-Nik ez dakat goguan baiño, bueno han bilduta jarri ezkeo geo egurra eamatia hua laste [...] zea izaten zan txarrena, egurra ekartzen, bai. Nik ez dakit, ez dakit zenbat bihar guk kaobia in gendun, ze, ez dakit, aztu're iña dakat. Baiño, urte askotan ez dakit, ez dakit, in ote gendun'e.

-Ta zertako, etxeako ibiltzen zenduen o?

-Bai, bai bai geo souai botatzeko, geo souan zabaldu, ta harri koxkorak danetan hola botatzen giñun, gurdiyan eamanda, ta geo [...] hua, ur pixkat bota, ta ura botzen zan garaiyan harriya bezela dana zea ta hauts-hauts inda geatzen zan, geo hua palakin hartu ta zabaldu, ta hua, hoi're [...] azkenengua azkenengua lakra ziaro hoi're, azkenengua bueno, ez dakit nik, ez dakat gouan zenbat in giñunik, ez zat goatzen, baiño ez giñun [...] asko ingo.

-Handik aurrea erosi iten zenduen? Handik aurrea erosten hasi ziñaten?

-Utzi, beno biharko utzi eziñak'e be lanak izaten ditu e, ez dakit noiz arte

aitzen giñen ez dakit, gouan ez dakat, ez dakat gouan.
-Ta, zuen etxekok bakarrik itten zenduen o soziyok hartuta?
-Bi [...], alkarrekin, bai.
-Saldu ez zenduen bat'e eiten?
-Nola ba, ez dakat gouan behintzat nik, saldu bai, etxeako're, hoi terreno
hoitan emateko zea hutsa ez zan izango ta, hua're bai [...] pixkat baiña
geo, zea erre ta eosi ta jartzean garaiyan hua're ez da gauza haundiya
geatzen e, ez ez ez da gauza haundiya geatzen. Harrek'e lerma gor itten
du, bai.

4.2. Karearen erabilera

- **Hizlaria(k)**: Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LUL-010/019
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:37:27. **Bukatu**: 00:38:42
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k)**:
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Karobiak eta elurzuloak
- **Laburpena**: Karea soroarentzako ongarri bezala erabiltzen zuten.
Tamainan bota behar izaten zen. Etxea pintatzeko ere erabiltzen zen.

Transkripzioa

-Ta soruai ze iten ziyon ba?
-E, zea, ongarriya bezela, souantzako!
-Desinfektatu bezela?
-Bai, bai bai bai, ona, karia gauza ona baiño, geo belar kaxkarrakin'e
zeatu're eitten dittu ta, galdu're eitten dittu ta, ona souantzako! Geo,
txitxare ta, hoik'e bai, hoik'e akatu itten dittu ta...
-Tamaiñan bota behar ordia.
-Bai, tamaiñan bai, hoi izate zun'e, gehiyegi ez zan askotan izaten,
gutxigiya bai gehiegiya, zailla pasatzea.
-Noiz ematen zan karia, ximaurtu ondorenian, aurretik?
-Ez dakit, ez dakit, hori ez dakit, akaso, akaso beitatik pixkat igual botako
gendun, kare pixkat, ta geo ximaurre pixkat, hoi ez dakit, ez dakat gouan.
-Ta, etxia pintatzeko ta're in izan zenduen karia?
-Baita, baita, hua're izaten zan.
-Zeuek iten zenduen hoi o, kanpotik etortzen zan batenbat?
-Hoi, zeakin izaten zan makinakin hola, pintatzen [...] o ez, geu ez dakit
aitzen giñen, ez dakit, ez dakit.

5. Herria, azpiegitura

5.1. Garia jasotzeko modua; meta egitea

- **Hizlaria(k)**: Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artetxe, Miren
- **Erref**: LUL-010/021
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:41:05. **Bukatu**: 00:44:32
- **Transkribatzailea**: Gallastegi, Maddi

- **Gaia(k):**

Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Baserria » Baserriko lanak » Garia

- **Laburpena:** Garia nola jasotzen zuten azaltzen du. Denbora askoko lana izaten zenez auzokoen laguntzaz biltzen zuten. Eguraldi beroa aprobetxatzen zuten garia biltzeko. Bere lastoarekin lotzen zuten. Gero metatu egiten zuten. Eguraldi ona zen garaian zabalduta jartzen zuten bi edo hiru lagunen artean.

Transkripzioa

-Ta, nola jasotzen zenduen, igitaiakin, segakin?

-Bai, geo bai, aurrenetikan igitaiakin, igitaiak holakoxe haundik izaten zian, batzuk haundik, ta honea ertena, ta hemendik heldu, ta bildu ta eskuakin hartu ta "rast", heldu pixkat ta "rast", hoi're batzuk, hoi jenealen zea izaten giñan, guk hori ta bestiai ta, kuadrilla bilduta jenealian, bestela pazientzia denboa askoko lana, ta gaur zuena ta biyar guria ta, alkarri lagunduz itten gendun hori, bai. Ta geo noizabaitta hasi zan segakin ebakitzen, bai. Atzian kirtenetik honea beste egur bat jarri, ta harrekin, ta ondo ebaitzen zan harrekin e, bai bai bai ta geo harrekin.

-Pillaka pillaka?

-Bai bai, [...] baino hua're pixkat indartu arte eo eoki in bihar, bestela [...] lizundu itten zan, ta pixkat euzkitan inddartu ezkeo, geo lotu.

-Erreparatzen zitzaion ezta, egualdiyai? Jasotzeko garaiyan?

-Al dana al dana al dana bai, al dana bai.

-Al zan berona nahi izaten zan?

-Bai berona bai, al dan azkarrena inddartzea, geo postura hontako zea [...] koxkorak'e bai, ta lotu, oaintxe ez, nik oaingo umiak jarriko nittuke hola, jarri biharko lueke bai, besteik ezian, jarri beharko lueke.

-Be lastoakin lotzen zan o, zeekin lotzen zan?

-Bee lastoakin, bee lastoakin, bai.

-Ta, geo zenbat denboan eukitzen zian haiyek sekatzan?

-Haik eoten zian eun baten bat eun ba ze giro harrapatzen zittun, geo itten giñun metatu, hola tente jartzen hasi, bat honea horkua honea ta behekoa honea ta hola tarte pixkatekin ta, geo buelta guztin, ttentte-ttentte jartzen giñun.

-Buruz gora?

-Bai, buruz gora. [...] ba nik'e, ipurdiya, hemendikan horreaño o hola, buelta guztin. Ipurdiya hola jarri, geo bestia, goraxeo, ta geo hurrungua pixkat goraxeo ta muturra istutu itten zan, ta muturra puxkat istutzen dan garaiyan utzi, ta hiru illera o hiru o ez dakit ze illerak izaten zittun. Istutu ta bueno, hantxe puskatian. Geo batzutan txorik jan itten zituen, muturrak tapatzen aitzen giñen, bai. [...] belar zakarrak eo bota, ta txorik jan be, bai, hartan aitzen giñen.

-Ta geo, jun in beharko zan?

-Geo ebaldi earra zan garaiyan, zabalduta jarri, ta zabalduta jarri ezkeo behera [...], harri batzuk'e bazian ta harri haundi batzuk jarri, ekarri ganaukin, ta jarri ta, belaxe [...]

-Goitik behera hautsez beteta.

-Bai, bai.

6. Ohiturak eta bizimodua

6.1. Artoa eta garia jartzeko lurra prestatu

- **Hizlaria(k):** Irazu Azkue, Joxe
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Erref:** LUL-010/025
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:51:31. **Bukatu:** 00:53:39
- **Transkribatzailea:** Gallastegi, Maddi
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
 - Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
 - Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
 - Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- **Laburpena:** Lursailaren erdian artoa eta beste erdian garia jartzen zuten. Goldearekin prestatzen zuten lurra. Laiarekin ibili eta gero merienda eskaini zietenean gertatutako kontakizuna azaltzen du. Laian egiteko jendea batzen zen. Lur-saila aldapatsua zenean laia erabiltzen zuten goldearen ordeaz.

Transkripzioa

-Ordun, lurra prepatzen ordia oain baiño lan gehio hartuko zenduen?

-Bueno, hartuko ez gendun ba! Alde earreko saillak itten zian! Atze hau dana, [...] jesukriston arto saillak, erdiya artua ta beste erdiya gariya.

-Zelain izaten zenduen o aldapakin?

-Ez ez ez, zelaiyak bazeuden nahikua, hor sailla nahikua bazan.

-Ordun goldia ta...

-Goldia goldiakin, bai. Hemengo aurria hau berriz aldapa xamarra, ta hau berriz zeakin [...] laiyan, geo pixkat proatuko gendula ta goldiakin, goldiakin'e poliki, [...] ez da gaur goizeko kontuba, [...], gue atta zana, [...] bestia ta hola, dozena bat gizon bildu bihar goldeako, laiyeako! Beno, saiyya in de ba, laiyan, ta geo han asko Muarre (Mugarre) ondón meinda, ta gue ama zan horrek sardintzar bana, oliyo puska batekin ta, hor beheko attona zanak: "Hau dek gauza hau! [...], hau dek gauza hau!", bai, hua antsiya, hua jateko antsiya: "Hau dek gauza hau!". Ogiya oliyotan busti, ta ordun'e al zunak al zuna! Oaintxe bezelaxe, al zunak al zuna.

-Laiyan iteko, jendia juntatu ingo zan...

-Juntatu itten giñan, bai, juntatu.

-Gaiñontzian artua iteko're bai?

-Ez, artua jenealian zeakin, hemen goldeako o zearako artua, toki aldapa xamarra ez baldin bazan goldeakin jiratzén zan, oain aldapa xamarra baldin baa, ordun laiyan, bai.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Senideen arteko aldeak adinaren arabera (LUL-007/002)

Bost senidetan hirugarrena zen. Gazteenak hobeto bizi zirela uste du, zaharrenak lan gehiago egin behar izaten zutelako. Mikaelak etxeko lanetan amari laguntzen zion. Ahizpa gazteenak, berriz, eskolara joateko aukera gehiago izan zuen.

2. Eskolaren garrantzia lehen eta orain (LUL-007/003)

Eskolara sei urte zituela hasi zen, baina ama gaixotu zenean eskola utzi behar izan zuen. Orain umeak gehiago joaten dira eskolara. Lehen eskola erraz uzten zuten. Eskolatik azkar itzuli behar izaten zuten etxean laguntzeko.

3. Ingurukoekin jolasean ibiltzen ziren (LUL-007/004)

Jolasean, korroan eta harrapaketan ibiltzen ziren. Orain jendea aurreratuagoa ikusten du. Igandeetan, orain umeak kanpora joaten dira; eta lehen, berriz, ez ziren inora joaten. Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren bai jolasean bai eskolan. Pilotan ere elkarrekin ibiltzen ziren. Mutilak pilotak trapuz josita egiten zituzten. Orduan denetatik gutxiago zuten.

4. Txikitako ibilerak (LUL-007/005)

Mikaela txikia zenean, ume gehiago zeuden: 60 inguru elkartzen ziren eskolan, neskak eta mutilak nahastuta. Eskolan irakurtzen, idazten eta kontuak ateratzen ikasi zuten. Erdaraz egin behar izaten zuten, ondo ez zekiten arren. Maistrak egindako koadro batean ikasten zuten. Borrokatu ere borrokatzen ziren, eskolan eta etxean ere.

5. Txikitan jolasean (LUL-007/008)

Hiru etxe elkarrekin zeuden; eta, hirutan umeak zeudenez, denak jolasean ibiltzen ziren. Berandu iristen baziren, haserretu egiten zitzaizkien. Edozein jolasetan ibiltzen ziren.

6. Inguruko umeak zaintzen (LUL-007/009)

Mikaela ume zalea zen eta inguruko ume txikiak zaintzea gustatzen zitzaion. Umeak entretenitu egin behar zituen; eta, batzuetan, ilea elkarri moztu ere egin omen zioten.

7. Jai arratsaldeetan inguruko festetan (LUL-007/011)

Jai arratsaldeetan soinu-jotzailea izaten zen eta dantzan ibiltzen ziren, soltean. Baltseoan ibiliz gero Kongregaziotik botatzen zituzten. Iluntzean etxera joan behar izaten zen. Villabonako festetara ere joaten ziren, Asteasu, Zizurkil eta Alkizara ere bai.

8. Hernioko erromeria (LUL-007/012)

Hernioko festak ere disfrutatzen zituzten, herri guztia joaten zen eta. Zelatunen bazkaldu ondoren denak soka batekin lotzen ziren, kalbarioak esan eta jaisten ziren. Iraileko hirugarren igandean joaten ziren Herniora. Parranda handia izaten zen eta ingurukoekin elkartzen ziren.

9. Asteasuko festetan (LUL-007/013)

Asteasun igande batean akordeoia eta bestean ttunttuna izaten ziren. Han ere mutilak ezagutzen zituzten eta dantzan ibiltzen ziren. Lagunak bertakoak

zituen eta oso gustura ibiltzen ziren. Gazte denbora primeran pasa zuela dio. Okerrena goiz itzuli behar izaten zutela zen.

10. Dotore jantzi eta festara meza entzun ondoren (LUL-007/014)

Festetara dotore jantzita joaten ziren baina orain baino okerrago. Alpargatekin joaten ziren. Igandero mezetara goizean eta arratsaldean bezperak entzutera, isil isilik eta ondoren festara. Mutilei libreago uzten zien.

11. Neskak ez ziren tabernetan sartzen (LUL-007/015)

Besteak bezala ibiltzen ziren eta ez ziren kexatzen. Tabernetan neskak ez ziren sartzen, mutilak berriz bai. Lehen orain baino errespetu gehiago zegoela uste du.

12. Lehengo janzkera eta jostunak (LUL-007/016)

Udarako soineko berria egiten bazuten, gustura ibiltzen ziren. Ez ziren gaizki jantzita ibiltzen. Soinekoak jostunek josten zizkieten Tolosatik edo Donostiatik ekarritako telarekin. Soinekoa beso motza bazen jertsea jartzen zuten Elizara joateko. Eskote handirik ere ez zuten uzten apaizek.

13. Herriko festak (LUL-007/018)

Elizan egun bereziak ospatzen ziren. San Esteban eta San Bartolome egunetan herriko festak izaten ziren. Meza nagusia eta soinua izaten ziren. Etxean bazkari berezia egiten zen arratsaldean festara joan aurretik. Kanpotik ere batzuk etortzen zitzaizkien bazkaltzera, familiakoak.

14. Kandelaria Eguna (LUL-007/019)

Kandelerio Egunean kandelak bedeinkatu eta meza ospatzen zuten. Etxean apururik bazen kandela bedeinkatu haiek pizten zituzten. Kandelak armairu batean jasotzen ziren behar ziren bitartean. Orduan mezak garrantzia handiagoa zuen, orain berriz askoz gutxiago.

15. Aste Santua eta Corpus Eguna (LUL-007/021)

Aste Santuan kanpotik fraide bat etortzen zen sermoia egitera. Sermoi gogorak izaten ziren. Elizkizun asko izaten ziren eta prozesioa ere bai. Prozesioa Elizaren bueltan egiten zuten. Corpus Egunean ere funtzio ederra egiten zuten. Loreak ere botatzen zituzten. Orain hori dena galdu da.

16. Erramu eguna (LUL-007/022)

Erramu egunean erramuak bedeinkatzera eramaten ziren. Erramua trumoi eta tximista zirenean lurreko suan erretzen ziren. Batzuk goian ezer ez dagoela dioten arren Mikaelak baietz uste du. Ekaitza zenean Santa Barbarari errezatzen zitzaion.

17. San Joaneko ospakizunak (LUL-007/024)

San Juan egunean umeak loreekin joaten ziren mezetara. San Joan gauean sua pizten zuten eta bedeinkatutako lore haiek hara botatzen ziren. Leihoetan lizarra jartzen zuten. Arropa zaharrak ere erretzen zituzten. Plazan batzuk salto egiten zuten. Oraindik ere egiten dute.

18. Taloak egiten (LUL-007/026)

Taloak txikitatik egin ditu etxean. Ogia ere bai. Lurreko sua zutenean suaren azpian erretzeko tokia izaten zuten. Orain ere egiten dute taloa Larraulen azaroan.

19. Taloak nola egiten zituzten (LUL-007/027)

Txikitan ogia taloa baino nahiago zuten, taloaz aspertuta zeuden eta. Ogirik ez zegoenean mendira ere bazkaria taloarekin eramaten zuten. Taloa nola egiten zuten kontatzen du. Oraindik ere jendeak taloa gustura jaten du.

20. Ogia nola egiten zuten (LUL-007/028)

Ogia nola egiten zuen deskribatzen du. Legamia eta gatza botatzen zioten. Legamia amak Tolosatik ekartzen zuen. Masa harrotzeko ordu erdi bat utzi behar izaten zen.

21. Oso txikitatik etxean lagundu behar izan du (LUL-008/006)

Gerra denboran aita soldadu ibili zen, eta Juan Bautista esnea partitzen laguntzera joan behar izaten zen, eskolara joan aurretik. Zazpi urte zituela, Asteasura oinez joan behar izaten zuen ogi bila.

22. Gerra, ume baten ikuspegitik (LUL-008/008)

Gerra denboran, erretore-etxean gordeta egoten ziren umeak. Umeek ez zuten beldurrik pasa, baina zaharrek bai. Gerra denbora gutxi luzatu zen herrian. Bandoz aldatu zen bati buruz hitz egiten du.

23. Gerra ondorengo urteak izan ziren gogorrenak (LUL-008/009)

Urte okerrenak gerra ondorengoak izan ziren, gosearengatik. 40. hamarkadaren amaierarako gauzak hobetu ziren. Etxean lanerako makina ere erosi zuten. Moesa motorra zuen.

24. Artoa egiteko prozesua (LUL-008/010)

Etxean artoa nola egiten zuten deskribatzen du. Lurra prestatu, simaurra bota, zuloak egin... Artoa eta babarruna elkarrekin egiten zituzten.

25. Artoa zaindu eta bildu (LUL-008/011)

Artoa haziz gero, lorea kendu behar izaten zitzaion. Hortik aurrera eman beharreko pausoak deskribatzen ditu. Artoari kendutakoa ganaduari ematen zitzaion. Neguan artoa zuritzen zuten. Biltzeko garaia San Martin inguruan izaten zen, azaroan. Bildu ondoren gurdira eta handik mandiora eta ganbara eramaten zuten.

26. Babarruna noiz biltzen zuten (LUL-008/012)

Babarruna irailean biltzen zuten. Eguraldi lehorra behar da horretarako. Lekarekin uzten zuten lehortzen. Eguberri aldera zuritzen zuten.

27. Babarrun zakua belar artean gordeta (LUL-008/013)

Gerra ondoren, ekoiztutakoa deklaratu behar izaten zenean, amonak babarrun zakuak mandioko belar artean gordetzen zituen. Herriari gauza asko entregatzen zizkioten hala ere.

28. Gerra ondorengo eskasiak sortutako pasadizoa (LUL-008/014)

Gerra ondoren, txekor baten inguruan gertatutako pasadizoa. Alkate karlista eta Guardia Zibila etxera sartu ere egin ziren. Juan Bautistaren etxekoek txerriak beste baserri batean gorde zituzten.

29. Gerra ondorengo janariak (LUL-008/019)

40. hamarkadan oliorik ez zegoen, esnegaina erabiltzen zuten babarrunei botatzeko. Patatak, txerri urdaia eta besterik ez zegoen. Amak gazta oso ona egiten zuen. Ez zuten ardirik, behi esnearekin egiten zuen gazta amak.

30. Amak gazta nola egiten zuen (LUL-008/020)

Amak etxean gazta nola egiten zuen azaltzen du. Gatzagia Tolosako azokan erosten zuen. Prozesu guztia eskuz egiten zuen. Moldeak burdinazkoak ziren. Gazura txekorren zat gordetzen zuten.

31. Etxeko abereak nola elikatzen zituzten (LUL-008/021)

Garai haietan pentsurik ez zegoen abereentzat. Animaliak etxeko gauzekin elikatzen zituzten, erremolatxaren pulparekin eta horrelakoekin.

32. Azukre erremolatxa (LUL-008/022)

Azukre erremolatxa sail handiak izaten ziren garai batean. Noiz eta nola egiten zen argitzen du. Barruan gorde behar izaten zen, berehala izozten da eta.

33. Ezpain-soinua igande arratsaldeetan (LUL-008/024)

Igande arratsaldetan musika izaten zen. Nicolas Azpeitiko Iztingakoa izaten zen musikaren arduraduna. Ezpain-soinua jotzen zuen. Ez zuten dantzarik egiten.

34. Larraulgo festak zergatik atzeratu ziren (LUL-008/025)

Larraulgo festak San Esteban egunean eta San Bartolometan izaten ziren. Festak San Bartolometara zergatik atzeratu zituzten argitzen du.

35. Oilasko jokoa Larraulgo festetan (LUL-008/026)

Garai batean festa gehiegirik ez zen izaten. Oilasko jokoa egiten zen. Joko hura nolakoa zen kontatzen du.

36. Aurrerapen gutxi Francoren garaian (LUL-008/030)

Francoren garaian herriak ez zuen dirurik jasotzen, eta ez zen batere aurreratu. Argindarra bazegoen. Errepideak 1957 urtean egin ziren. Kotxe gutxi zeuden garai haietan.

37. Asteasura oinez, egurra eramatera (LUL-008/031)

Larraulen burdinola egon zen, baina martxan ez dute ezagutu. Neguan Asteasura egurra eramatera joaten ziren, oinez.

38. Larraulgo bailarak (LUL-008/032)

Larraulgo bailarak zeintzuk diren kontatzen du. Bakoitzaren izenen zergatiak argitu ere bai.

39. Eskualdeko euskara eta oraingo euskara berria (LUL-008/033)

Euskararik garbiena Tolosakoa dela esaten dute. Larrauletik Aia eta Azpeitira euskara asko aldatzen da. Inguruko herrietan ez dago desberdintasunik. Oraingo euskara berria ezin omen dute ulertu.

40. Umetan mendian egindako bihurrikeria (LUL-008/035)

Mutil koskorretan mendira askotan joaten ziren. Elurra egin zuen batean gertatutako pasadizoa gogoratzen du.

41. Txoriak harrapatzen (LUL-008/036)

Umetan txoriak harrapatzen ibiltzen ziren. Erabilitako teknikak azaltzen ditu. Zozoak, birigarroak, txepetxak eta horrelakoak izaten ziren.

42. Umetako bihurrikeriak (LUL-008/038)

Eskolara joan gabe gelditu ziren batzuk basoan gorde zirela gogoratzen du. Zigortu egin zituzten, eta beldurtu egin ziren. Apaiza Don Luis zen. Harekin ere istilu bat baino gehiago izan zituzten. Makilarekin jotzen zituen.

43. Elizan neska-mutilak ez ziren elkarrekin eseritzen (LUL-008/040)

Elizako aulkietan neskak eta mutilak banaturik esertzen ziren. Orain jende gutxi joaten da elizara. Garai batean bezperetara Garizuman joaten ziren.

44. Apaizaren sermoiak: bekatua eta infernua (LUL-008/041)

Prozesioak, gurutzeari muin ematea... Sermoi luzeak egiten zituen apaizak garai haietan. Bekatua eta infernua izaten ziren gai nagusienak. Larraulen Donostian baino bekatu gehiago egiten zirela esaten zuen apaizak. Sermoia pulpitutik botatzen zuen.

45. Heriotza ondoren zeuden aukerak (LUL-009/002)

Bataiatuz gero normal enterratzen ziren haurrak ere. Gaiztoak infernura, erdipurdikoak purgatoriora eta onak zerura joaten zirela esaten zen bere garaian. Orain, berriz, ez daki zer esango duten horri buruz.

46. Botikararik hartu gabe ere asko bizitzen ziren Larraulgoak (LUL-009/003)

Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Izagirre baserrikoa. Aitona-amonak ere beraiekin bizi ziren. Aitona eta aita urte asko zituztela hil zitzaizkion. Garai hartan ez zegoen botikarik, baina hala ere luze bizi ziren. Beste batzuk ere urte asko zituztela hil ziren Larraulen, ez zen hain arraroa.

47. Ama Donostiara joaten zen egunero esnea saltzera (LUL-009/005)

Bizimodua ateratzeko esne pixka bat saltzen zuten. Ama Donostiara ere joaten zen esnea, porruak, sagarrak, eta abar saltzera; horrela, bizitzeko beste ateratzen zuten. Goizeko zortzietan Villabonara zaldiz joaten ziren eta handik trolebusean Donostiara. Ibilera txarra izaten zen. Gero buelta Villabonara eta hiruretarako etxera bueltatzen ziren. Donostian egun erdia pasa eta gero pezeta batzuk besterik ez zituen ekartzen. Etxean ere ez zuten gauza handirik izaten. Sei behi zituzten eta esne gutxi ematen zuten. Baratzeko gauzak ere saltzen zituzten.

48. Gaztainak biltzeko modua (LUL-009/006)

Etxean bazituzten gaztainak, baina ez zituzten kanpora saltzen. Gaztaina morkots eta guzti zakuan sartzen zituzten. Morkotsak txardango deituriko adar batekin biltzen zituzten. Morkotsak etxe kanpoan uzten zituzten eta zabaltzen zirenean alea kopa batera botatzen zuten.

49. Gaztainak nola jaten zituzten (LUL-009/007)

Gaztainak egosita edo danbolinean erreta jaten zituzten. Gaztaina motelak zirela iruditzen zaio; erreta jarrita biziagoak ziren. Edozein momentutan jaten zituzten. Artoa ere erretzen zuten.

50. Etxeko ogia eta kanpotik ekarritakoa (LUL-009/008)

Artoa nola erretzen zuten kontatzen du. Motela gelditzen zen. Ogia ere bertan erretzen zuten. Gerra garaian opilak banatzen zituzten, gogor-gogorak. Asteasuko okinak ogia etxera ekartzen zien. Baserriz baserri ibiltzen zen, baina gerrarekin hori guztia amaitu zen. Garia eta artoa egiten zituzten.

51. Gerra hasieran, gorde egin ziren (LUL-009/009)

Gerra hasi zenean, zortzi urte zituen. Kale aldetik karlistak, eta beste aldetik gorriak, ezkertiarak, etorri ziren. Beraiek tiroen artean zeuden. Kanoiak ere bota zituzten. Dena txikituko zutelakoan beste etxe batean gordeta egon ziren, Ezkerranean, egongelan denak errenkan etzanda jarrita.

52. Gerrako tiroketetatik babesteko neurriak (LUL-009/010)

Leihoetan artilezko koltxoiak jartzen zituzten; horrela, munizioa ez omen zen pasatzen. Belar bila joaten zirenean, etxera korrika itzuli behar izaten zuten, tiroka zebiltzalako. Ezkerra baserrian bi edo hiru gau pasa zituzten.

53. Tiroteoak gerra garaian (LUL-009/012)

Gorriak bat-batean azaldu ziren batean, bertan zeuden karlistek eskapada izugarria egin zuten. Aita-eta alde eginda zeuden, eta etxean mutil koskorak, ama eta aitona-amonak besterik ez ziren gelditzen.

54. Garia baserrian (LUL-010/020)

Garia udazkenean egiten zen, azaroan eta abenduan, esaera zaharra ere bada horren inguruan. Garia bildu ondoren artoa edo babarruna jartzen zuten.

55. Artoa eta babarruna nola jarri, landu eta bildu (LUL-010/027)

Artoa eta babarruna nola jartzen zituzten azaltzen du. Ugariegi ernetzen baziren bakandu egiten zituzten, babarrunak argiuneak behar baititu lorea ateratzeko. Jorraren inguruko esaera zaharra jakinarazten digu. Azala kendu egiten zuten eta behiei ematen zien jateko. Karea eta simaurra botatzen zuten. Babarruna ez zen beti berdin biltzen, urritik aurrera normalean. Azaroan ere kondarrak izaten ziren. Artoa berriz azarotik aurrera, San Martin inguruan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com